


Bizkaitarrei Bizkaieraz

74ER

377n. zenbakia • 2011 Abendua



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

MESIAS SARRITAN

Mesias sarritan agindu zana
Aingeru artean dator gugana
(barriz)

Gloria zeruan, bakea emen
Kantari aingeruak dagoz belenen
(barriz)

Belengo portalean negu gogorrean
Jaioa da gure Jesus
Askatxu batean
Estalki gabe dago
Abere artean.



Euskalerria
edo Euskadi



Bilboko Itxas-adarra

Zorion eta urte barri on

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2011-2012 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 44. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

44. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

BILBOKO ITXAS-ADARRA

Bilboko itxasadarra ez da Nilo ibaia. Ez dago piramiderik alboan.

Baña ba dau zer ikusirik ur bastarrean. Iraganeko arrastoak eta etorkizuneko eraikuntzak parez pare dagoz urondoan.

Eta zer orreik ikusteko itsasontzian sartu eta ibilalditxu bat egitea baño oberik?

Bilbotik Santurtzira itsazontziz joango gara. Berrogeita hamar minutuko ibilaldia izango da, Urribartetik Santurtziraño, 14 bat kilometro.

Ibai oneri Nervion esaten dautsoe batzuk; besteek, oster, Ibaizabal. Dirudienez, eskaldunek Ibaizabal esaten eutsoen. Beraz, euskeraz ari gara ta, Ibaizabal esango dautsogu.



Motorra martxan ipiñi ta beingoan zubi eder baten ondoan gara :Calatrava arkitekto famatuak egiña. Emendik oso gertu dago Salbeko zubia. Itsasontziak Ibaizabaletik gora joyazenean, toki orretantxe ikusten eben aurrena Begoñako Basilika, eta ortxe errezatzen eutsoen Salbea Ama Birjiñari.

Salbeko zubiaren magalean ametsetako eraikuntza ageri da, orma okerregez eginda eta argia islatzen daben titaniozko xafraz bildua: Guggengein Museoa.

Eta eskuman Deustuko Unibaersitatea.

Ekar-Munetxe



ANGEL

Gure amumak kontatzen euskuzan ipuin askoren artean, une onetan, ume-denporan bere errian bizi izan zan Angel izeneko mutil gazte baten pasadizua datozt burura. Gure amumaren esanetan, mutil galanta izan behar zan Angel: baltzerana, ule kizkur eta begi urdin ederdunen jabea eta gorputz lirainduna. Orrez gain, atsegiña eta min gozokoa ere. Entzutesua be bazan Angel bere erriko eta inguruetako nesken artean eta euretariko asko be ezagunak ziran Angelentzat. Neska guztiak zorrotuta ebikolzan atzetik, baiña Angelek ez eban aintzakotzat artzen neskek eskeintzen eutsien maitasuna. Ori zan ba, Angelen akatsik nabarmena: neskazale amorratua zala.

Bitxori be baebilen Angelen atzetik. Aspaldi maite eban mutilla, baiña, jakiñik zelango andrazalea zan Angel, ez zan ausartu inoiz bere sentipen au inori azaltzen. Baiña domeka arratsalde baten, erromerian, Bitxori Gloria bere laguna-gaz egoala, Angel urreratu jaken beste lagun bategaz. Angelen begiak Gloriagan jarrita egozan lenengorik, baiña onek kasurik ez egiterakoan, Angel Bitxorigaz berbetan asi zan. Bitxorik, bera lenengoz aukeratua ez zana jakinda ere, ez eutson ardurara eta pozik joan zan Angelen besotik oratuta. Ordurik, sarri ikusten ziran alkarregaz.

Egun baten, Angelen lagunik onenetarikoa zan Patxik, kezka betetik, esan eutson:


- Angel, aspaldion beti ikusten zaitut Bitxorigaz. Kontuz ibilli zaitetz. Ez dakit zuk dakizun nor dan bere ama, baiña nik berataz gauza asko entzun dodaz eta bata be ez ona. Sorgin ospea dauka. Inaki Bekoetxeoari badakizu zelan beiak il jakozan, ezta? Ba errian zabal da Bitxoriren amaren eraginenez izan zala.

- Patxi, mesedez. Ez da izango orrelakoak be sinistu egiten dozuzala!

- Ba bai, Angel. Niri sorgin kontuak errespetu andia emoten deuste. Nik badaezpadan diñotsut. Neure laguna zara eta neska orregaz olgetan ibiltzeagaitik ez neuke gura zuri ezer txarrik gertatzerik.

- Lasai, mutil. Nik orrelakoetan ez dot sinisten. Niri kalterik egiteko gauza dan sorgin atsorik ez daago!

Pasa ziran iru-lau illabete eta Angel Bitxorigaz nekatzen asi zan. Gero ta gitxiagotan joaten zan bere billa. Bitxori



kalean ikusterakoan, ostendu egiten zan. Bein, Bitxori Angelen aroztegian azaldu zan bere azkenengo egunetako jokabidearen zergaitiaren eske. Angelen erantzuna onelako gordina izan zan:

- Ara, ba, Bitxori, artez esango deutsut. Aspertu egin naz beti, egunero, goiz eta arratsalde zugaz egoten. Lagunengadik ere urrundu egin naz zugaitik eta nigaitik alkar ikusteari itzi egin beharko geunke. Ez dakit inoiz maitatu izan bazaitut, baiña argi daukat orain maitatu ez zaitudana eta etorkizunean ere ori posible izango ez dana.

Bitxorik erantzuteko be indar barik, aroztegitik arrapaladan urten eban.

Aste batzuk igaro ziran Angelek Bitxoritaz ezer jakin barik. Burutik be kenduta eukan neskea, egun baten, bere laguna Patxiagaz egoala andra batek kalean gelditu ebanean:

- Angel, ni Bitxoriren ama naz.

- Bai, bistaz ezagutzen zaitut -esan eutson Angelek.

- Nik zu bistaz baiño be geiago. Zu lotsabako bat zara! Neskak engañatzen baiño ez dakizu. Eurekaz jolastu eta nekatzen zaranean, botata itzi -garrasi egin eutson asarre bizian.

- Emakumea, itzi nagizu bakean, mesedez.

- Zure erruz, Bitxori gaisotuta dago. Zuk zeuk ere, neskak zugaitik sufritzen dabena jasan beharko zeunke! - gero ta ozenago.

- Joan zaitetz etxera eta itzi bakean, atso ori! -Angelek arrotasunez.

- Zeuk ere zure ondamedia maitasunean aurkituko dozu! - bota eban andreak.

- Ja, ja, ja! Nire biotza beteko dauan andrarik ez da jai. Nik ez dot maitasunagan siñisten.- Angelek erronkari.

Bitxoriren ama, amorruz beterik begiak be ia urteten eukazala, kalea igoten asi zan, aditzen ez ziran berbak murrurikatzen.

Patxiren aurpegia ikustekoa zan. Bere betiko kolore zuriak zuriagotu egin jakozan.

- Angel, lehengo egunean ere esan neutsun kontuz ibilteko andra horregaz. Errian edonork daki lupua bera baiño be txarraoa dana.- esan eutson Patxi.

- Ez eiozu lelokeririk esan, Patxi! Sorgiña dala ta be, beinola burua berotu izan gura zeunstan.





- Nik berataz entzundakoa entzun izango bazenu, zuk ere jakingo zeunke ori zelako andra gaiztoa dan eta bota deutsun maldiziñoak beldurtuko zindukez.

Angelek bere artan jarraitu eban. Gaur neska bategaz, biar beste bategaz..., Ninbe ezagutu arte.

Domeka arratsalde baten, Angel bere lagunekaz erromerira joan zan. Oillarra moduan, burua altzatuta ebillen Angel, neskaren baten billa. Alako baten, urrunean, neska eder bat ikusi eban. Gero ta gertuago, gero ta galantago iruditu jakon. Neskatoa, azal leun eta zuri, ule luze, urre koloreko, eta itsasoa bera baiño be begi urdin eta sakonagoen jabea zan. Egun orretako arratsalde euritsua udako egunik argienean biurtzeko gauza zan. Angeleri biotza, inoiz ez lez, taupadaka asi jakon. Berbetan asterakoan, miña trabau egin jakon:

- Kaixo, neska - Angelek txistua iruntsi behar izan eban.

- Arratsalde on- neskeak.

Itxuraz unkiagarria bazan, bere aotsa udako goiz argit-suko txorien kantua baiño atsegiñako egin jakon.

- Ninbe da nire izena.

- Angel, nirea. Zu ez zara emengoa, ezta? Iñoiz ez zaitut ikusi eta.

- Orain dala gitxi etorri naz ona bizitzera.

- Ba, ez dakizu zenbat pozten nauban ori entzuteak. Oraindik aurrera erromerira bazatoz, emen ikusiko gara falta barik. Ni domekero nator.

Gero, musikea amaitu zanean, agur esan eta bakotxak bere etxeranzko bidea artu eban.

Angelek ezin izan eban burutik kendu Ninbe. Ezer-tarako gogo barik ebillen aste guztian, igandea noiz elduko itxaroten, Ninbe ikusteko naian.

Astequnetan gaixotuta lez egoten bazan be, igandea eltzerakoan berbiz-tu egiten zan Angel. Bera be konturatu barik, Angelek azkenean maitasuna ezagutu eban.

Igandeetako arratsaldeak luzatzen asi ziran. Nequa amaitu


ondoren, udabarrira iritsi zan, udea gero eta uda goieneko domeka arratsalde baten Angelek Ninberi:

- Ninbe, lazтана, urte oso bat bete dogu alkar ikusten domeka utsetan. Astean bein baiño ez gara ikusten. Nik egun geiagoan ikustea naiko neuke eta zutaz zeozertxo geiago jakitea ere. Nik ez neban iñoiz pentsauko maitemintzeko gai izango naganik, baiña, bai, biotzez diñotsut, Ninbe, ni zoratuta naukazu. Egunean barruan minutu bat ere ez jat pasatzen zutaz pentsatu barik. Zeozer geiago eskatu gura deusut. Zu benetan nor zaran jakitea, non bizi zaran, zure familia ezagutzea...

- Biotza - isildu eban Ninbek-. Lasai egon zaitez. Elduko da sasoi.

Angel ez zan gustora gelditu neskalagunak esandakoaz. Orregaitik, agurtu ziranean, Angelek etxeranzko bidea arto barik, Ninberen atzetik joan zan. Isil-isilik, neskatoa konturatu ez daian, arnasarik artzen be ez zan ausartu. Ainbeste ibilli ondoren, Ninbe berantza, itsasorantza urreratzen joan. Angel be atzetik. Neskea gero ta itsasorago sartzen asi zan eta Angel gero ta istuago. Ninbe goinea altxa ta arin-arin aitzik aitz saltoka urruntzen ikusi eban Angelek. Mutilla ez zan gauza neskatoari jarraitzeko. Illuntasunean, begi bistatik galdu egin eban Angelek Ninbe. Angel, aitz batetik beste batera salto egiterakoan, itsasora jausi zan. Ez eban jakin uger egiten eta, istu ta larri, aitzei oratu gurean, atzamarrak urrututa uretatik urten ezinik ebillen, bitartean Ninberi deiez. Baiña itsasoaren indarrak Angel bere barrura eroan. Gero ta aulago sentitzen zan uretatik bere burua ataratzeko. Azkenean, itsasoak iruntsi egin eban.

Urrengo goizean, Angel itota aurkitu eban Lamioren Punta izenaz errion ezagun dan lekuan. Ordurik aurrea, gorpua agertutako inguruan eta Angel il zan egunean, illontzerantza, neska bat aots gozoz kantzaten entzuten dala esaten dabe erritarrek.



Arantza Leaniz

4. Ipuin sariketa

BILBOKO TXAKOLINDEGIAZ



LEGINA TXAKOLINDEGIA

Begoñako klasiko bat zan, historikoki elezaar esaten diño, zelan bertan, zauritu eben Zumalakarregi, Bilboko sitiatuta egoan, leenengo gerra karlistan, eta gero tokialdatxe egin eben “Palacio del Pino”.

Gero, Zegama il zan.

Txakolin au, Begoñako askena zan.

Baña, Begoña aldean ainbat txakolingeiak egon ziran.

Gazteluiturri, Santi “La chorixa”, Garaizar, Arrieta, Anton, Uriarte, Araluze, Tutulu, Patillas eta abar.

Derrigor esan bear da Larrazabal txakolindegia, toki onetan Sabino Aranak proyetatu eban PNVren fundamentuak. El Juramento de Larrazabal.

Txakolin izan ziran geroago Bilbako bizi-modua sakonak.

Esan bear da, zelan edari onen izena, txakoliña edo txakolin moderna da, baizik Bizkaian ez da erabiltzen XVII mendea baño leenago.



MONTAÑO TXAKOLINDEGIA

Bilbao txakolindegi inguraturik egoan eta beste tokietan be bai.

Urteak zear, Bilbao txakolindegia eta garagardotegiz inguratuta egoan.

Artxanda aldekoak ziran, Deustotik Begoñaraiño aldatzean, maastiak egoteran obeto azten ziralako. Bilboko 1.399eko eta 1528eko udal ordenantzetan abendutik maitzara arte ezin sal zitekeen urian kanpotik ekarritako ardorik, ardo zuriaren salmentarako bi tabernatan izan ezik, karik eta Bilbao inguruan egiñiko txakolin guztia agortu arte bertoko edari-ekoizpena jagoteko.

Txakolindegiak nolabaiteko, jatetxe edo askalategiak izaten ziran.

Sasoian txakoliña eradaten baiña orduko edari garratz ura.

Eskuarki iru trakolin mota egiten ziran; zuria, geienbat ekoitzen eta edaten zana, oriberdexka; gorria, erruki kolorekoa eta aditu batzuen ustez, obea; eta azkenez ollar-begia deritzona, maats zuria eta baltza naastuz lortua.

Bilbaon, eben txakolindegi famatu bat, Montaña deritzona. Gerrikaetxebarriaren bizilekua.

Uribarri kalea Artxandako aldapan amaitzen dan tokian kokaturik egoan.

Txakolingei au, basetxe zabala zan.

Bilboko jendea, igande eta jai egunetan, eguraldi ona egiten ebanean, auzoko familia asko joiaten ziran ara.

Txakolina pitxerretan zerbitzen zan.

Ontzi onek lurrezkoak ziran. Ontziak bereziak izaten ziran, eta itxura polita eben.

Montaña txakolindegia baeukan gañera, bestelako erakargarririk bere; txori kantarien txapelketa ospetsua, adibidez.

Batzuetan antolatzen zan, goizez eta jendea asko bereganatzen eban aitzakia orregaz, aperitiboak bertan jateko.

Eta orain, apaitu bear dogu Legina txakoliña, XVIII mendekoa


Agustin Arrien




Zutoial

Lekeitioko arrantzaleen zutoial ikusgarria

- Zutoi au orain pizka bat alferrik alduta dago.
- Ekaitz aldietan Lekeitioko umeak maixuegaz eta erriko abade bategaz batera Juan Talako portu edo ermitara bilduten ziran letaniak eta zutoi au erabiltzen eben.
- Tresna au, da praka zar baten aurreko zatia, an-txiñako gizonen jantzierakoa.
- Gabonetako ogia lenengo **kurrusko** au, itsasora botaten zan, ermitako oliogaz batera.
- Letaniak kantatuz, basiliko kanpian entzuten ziran.
- Azkuen liburuan onek banatu eben, eta beran opera baten "Ortzuri" -(la de los dientes blancos), bigarren ekitaldian, idazten dau, "Atabakaren" berba famatua.
- Gauza da, Azkuek atabaka eta zutoi onek Etnografiko Museora emon eban.
- Zutoi onek, ezaugarria bat euki dau astaren puntan



Agustin Arrien





Euskalerrria edo Euskadi

“Berezko sorterri edo aberria da” (X)

ALDE BIETATIK IBILI ZIRAN GUDAL NAGUSI ONEIK, JAIOTZEZKO ERRI edo ABERRIAREN «BAITAZKO ERITZIAN» EUKITAKO ULERMENAREN ONDORIOA.

Karlista guda onen edestiko zeaztasunak ikusita eta berezko errigizartearen ulermenak psikologiko arloaren azterbidetik ikertu ezker, nastetasunezko arrazoi edo eritzi bidetik, oldozmen asko dira Nortasunaren ulermeneko «*Baitan*» eretxitu ta gero, okerrezko asmakuntzan agertzen diranak.

Edo ta arrazoi orren sorburua ikertuz, norkeriaren sasi jainko aldekoak guzurraren eragitez berezko erritarren «Baitak» nastuta, munduko giza seme alaba guztiak Nortasunik gabe, yopu batzango eritzi egindako aberri barrietan ardi talde lez ezarri gindezan, edesti guztiko alegin gogorretan dabizela.

Kontuan artu bear dogu, menderatzailetasunezko ulermen ori eritzi lez artzen badogu, sasi jainko mende zale indartsuen eskuetan geratzen gara, eta beti ibiliko giñake Aberriak aldatzen, sasi jainko mende zale bakotzak, sasi jainkotasunezko norkerian daukien ikurraren ametsa bete egin gura daualako.

Mundu onen bizitza on bideratzeko, baleiteke asmakuntz orrein artean, batzuk borondate onagaz egiten dabizela. *Baiña, Jaungoikuak Izadi oneri bereztuta ipini eutsoezan legearen aurka ?*

Norkerizko okerkuntza orreik ain indartzu agertu orduko, munduko giza seme alabaren *baitak* ulermenduta egon ziran ainbeste milla urte ariñago, daukagun gaiezko bizitza ez dala lur onetan irauteko, eta nai ta naiez, zor eskubidearen neurrizko epe labur bat daukiela.

Orduan, zergaitik onartu ez bereztasunezko Legeek agintzen deuskuna, jakinda aberetasunezko Gizan, Lur, Aize ta Uraren ordezkoko eskubideetan erperatuta daukaguzala ?.

Europan, norkeriaren sasi jainkotasunezko guzur au, erromatarren kaizar ametsarengandik datorrena da, eta berak maldaberan ekarten eban guzurra, K.o. laugarren gizaldian, Kristau sinismen erlijio ederra katoliko alderdikidetuz ta erromatarren kaizartzagaz biak norkerizko legean baieztu ebenetik, guzurrezko lokartzartetan sartuta gagoz gaur arte.

Napoleon eta Karlistadako gudak sortuta, zeintzuk izan ziran gaztearen ulermeneko baldintzak, Euskal ta Gaztelar edo Espainol gazteak gudal nagusitasunera elduta, ainbat ezberdintasunaren ustezko eritzieta agertu zitezene?:

a).- *Norkeriaren maltzuratasuna garaipentzeko alegiñez, karlista guda orreitara eldu orduko, amaitu ezin dan odoljariozko gudan ekarri dogu edesti guztia, gizaren ulermeneko ikuspegia ongaizkatuz, gorriz margoztu egin ebana.*

Orren esanaia, eskubidearen egia ta mendetasunezko guzurraren artean, borroka ugari ta latzak ekarri doguzela da, eritzi bi orreik zorro baten sartuta egon ezker, amaibako eztanda utsa baiño besterik ez daualako sortzen.

b).- *Yopuzko kolonigille denborak izanda ta Frantziko iraultzaren bidetik, berezko errien nortasunezko eskubideak ezereztuteko erabagi gogorrak artu ondoren, Europako guda bi orreik ez ziran izan besterik, opil gozo baten amaieran, gaiñean ipiniten jakon ginda antzera, European indarrez, joputasunezko mendetasuna ezarri, danok norkerizko erabagiaren agindupean bizi gindezan.*

Egia da, Munduan egin diran borroka nagusiaren ostean, damu aundiak egon direla eritzi bien aldetik, egin diran sarraskiak ain gogorrak izanda, danak billurtuta, nor guztien baitak garbaitasuna eskatzen dauskuelako, eta atsekabetasunean errudun sendituta, Giza ta Gaiaren eskubideak eskatu doguz beti.

Antza baiña, borroka guzti orreik ez dabe erabakitzen eta gitxiago argitzen ezer, atsekabetasun oiek

aienatu edo suntsitu egiten diranean, goialdeko batzuk edestitik datorren menpeko asmakizunaren ariari ebatzen dautselako, eta danak diru ta on biziaren lilluratasunezko eragipen bidetik, ostera joaten garalako norkerizko ekintzatar.

Danak jakin bear geunke baiña, "NORKERIA" LAPURRAREN bizitza dala.

d).- *Inguru begi zabal ori begien aurrean eukinda, baten batek esango daust, zer egingo leuke orduko nekazari gazte batek bere onbeartasunean naita naiez Napoleonen aurkako borrokan lerrokatuta eta au amaituta bere ogibidea lortzeko dagoenean edo lortu ondoren?.*

Erabagi oneri zentzun apur bat emotearren, gure orduko gizarte osoa kontuan artu bear dogu, norkeriaren menperatzailleagaitik indarrez kontrolatuta egonez gain, eurak egi lez aurkezten dauskuzan guzurrezko arrazoen eragipenakaz nortasunean naastuz, gizartearen antolamendurako gaur lez bananduta agertzen giñelako, jakintsu, gidari, maisu, lege gizon emakumeetan, erlijioaren gotzai, apaiz lekaide lekaime artetan eta gizarte mailletan.

Geiago izan giñan eta gara, bealdekoak garela esaten dauskuenai JAINKO ZALE mailla guztietan, baiña goikoak norkeriaren maltzurkeri bidez guda tresneritik asita, bear dogun on guztia kontrolatzen dabe eta bizitz onetan oraiñarte, gaiak aurkeztu egi-





ten dauskun diteken⁽¹⁾ guztiena kontrola daukenak, norkeriz jokatzeko sasi-irabazte osoa eukiten dau.

Guzti au ikusita, Euskaldun gudal nagusi bi aurkeztuko dotzuedaz, ikusteko, eurak zelan erantzun eutsoen JAINKO seme lez euken BAITARI.

a).-Zumalakarregi ta Imaztar Tomas izan zan bat: Onek ez eban euki bildurrik, JAINKOA ta Euskal Aberriko egiaren alde jokatuta, jakin ebalako zer jokutzen zan an, eta borrokara eldu orduko irabazle urtetan eban, bere guda talde osoa *Nortasunduta* joaten zalako borrokara, naita etsai gudalozteak aundiagoak izan.

b).-Bestea, Espoz ta Illundai ta Minatar Franzizko, lenengo Napoleonen aurkako aldian, garaipenduta urten eban ia borroka guztietatik, Euskaldunakaz Eusko Nortasunaren sinismenean borrokatzen ebalako.

Beste gauza bat agertu jakon, bere Aberriko Nortasunaren aurka, atzerritar maltzurrekin borrokatzen ebanean.

Len, bialtzen ebazan gudalozte aundi orrein gudariak, borrokan ibili ziran atzerritar lurraldea ezagutu ez gain, ez ziralako euren Nortasunaren egizko lurraldeak babesten ibili, eta gudaloztearen agintariak egi lez esaten eutsezanak, gudariiek ikusten ebenagaz geinetariko *baitan* ez ziralako egokitzen, ardura gitxigaz borrokatzen ziran.

Bigarren, Espozek bere ogibidea aurrera eroatearren, jakinda atzerritarrakaz bere anaiaren aurkako borrokan ibili zala, bere *baitaren* lotsak minduta, Espainol gorteari Nafarroan borrokatu barik, Akoruñara borrokatzen bialdu egiela eskatu ebanean.

A ta guzti, Espainako agintaritzak, Espoz ostera ekarri eban Euskalerrira, eurak ez ziralako gai izan Euskaldunak menperatzeko, eta atzerritarrakaz bere anaiaren aurka borrokatu zanean, nai ta Jauregi Artzaia esaten eutsoena ta beste Euskaldun batzuk lagun euki, emen zikindu ebazan ararte irabaziko ospe guztiak, bere ulermeneko baitan aitu ezinik asarratuta, Lekarozeko erritarrak bosgarrenka

(1) Diteken guztiena = todas las posibilidades.

berezitu ta tiros ilda erria erre, ta Karrera karlista gudal nagusiaren *ama* tiros ildako astokeriak egin ebazalako.

Egia da JAINKOAREN LEGEAK etsai asko ta aundiak daukazala, eta borroka orretan norkerizko zaleak euren egizko arrazoiakaz sortzen dabean naste borraraste lege bidetik, bizirik irauteko edo ta ogibidearen billa, ez gara arritu bear gazte batzuen alde bat edo bestean jokatzegaz, beartuta egiten ebalako.

Borrokan ibiltzen ziranean, alde batek edo besteak gazte gudariak arrapau egiten ebazanean, baktzaren taldetan ipintzen ebazan borrokalari. Eta euren egoera ori, saltzailleak izan ziralako zan ?.

Gure Batzarraren jabetasunezko denboratan askatasunean bizi bagiñan be, norkerizko maltzurtasunari alboratu ezinean eta Euskalerrriko Ego aldean gure jabetzak Espainako erregearen eskuetan usategabez geratu ziraretik, berarekin egiune bidetik egiten genduzan itzarmen orreikaz, Jaun-errege

bikoteko naste orregaz, Euskaldunak beti ibili gara anai arteko borrokan.

- *Orregaitik ez gara arritu bear, gizonak norkeriz edo ogi bidez beartuta bizirik irauteko, alango aldaketak egiten dabenezan.*


Eta gitxiago apentza edo asperkunde lez artu, basakerietan ez gindezan ibili.


- *Bizitz onetan gaur ikusten dogun lez, euskaldun guztien nortasunezko egokitasunak ez dira bardiñak..*

Gure azkeneko 2.000 urte edestiko ibilkeran, euskalerrri-lez daukaguzan eskubidearen etsaiak, guda-ındar eta guzurrezko arrazoi-maltzurakaz, euren zauriak egin dabezelako gure nortasunezko gorpuan.

- *Ortze dago gure sinis-bidearen arrazoizko lana, gure euskal gorputzan nortasunezko zauriak sendatzeko.*

- *Eta etsaiaren guzurrezko lege bidetik gaur alderdikierietan banatuta aurkitzen ba gara be, euskal nortasunaren egia ipini bear dogu «elburu» danon uler-*





menetan, naste edo okerrezko zauri orreik osasundu daitezana.

- Ni baiño euskal nortasun aundiagoko zarragoari, askotan entzun dautsiet esaten: «**egiak askatuko zaitue**» eta berba orreik, euren berezko esanean artu bear doguzenak dira.

-Zumalakarregigaz ikusi dogun lez, euskaldunak, sinemeneko elburu bidez alkatuko ba giña laster lortuko geunke euskadiren askatasuna.

Euskaldun bakotzak bere neurrizko ulermenean, maite dogulako gure izatasunezko euskalerria.

-Gaiak, aurkezten dauskuzan bere aukereak, norke-
rizko indar aundienean ibilita be, ez daukalako indar eta zer egiñik, arrazoi ta maitasunaren sinismeneko indarraren aurka.

-Mundu onetan, jaungoikuak nortasundutako legearen aurka, ez dau aurkakorik, eta gitxiago eragille on-lez, euskal ardurak maitasunezko zentzunean erabilten badoguz.

-Geiago: bizi garan gizaldi au, zor-eskubideko ardu-
rean sartuta gagozan guzurrezko lokatz onetatik urteteko, eta amiltegiaren aurrean kokatuta gagozela-
lako aurrera ezin eginean, nai-ta nai-ez, gaia, giza eta errien eskubideak berrezkuratzeko denborak eldu diralako da..

-Gizaren eragilletasunezko arduran beartuta, nor-
keriaren zentzun bako lapurkeritik urten bearrean aurkitzen gara, eta orren itzulpena: «**nortasunaren zentzun aundiko aldi kokatuta gagozela**» esan nai dau.

-Euskalduntasunak, nortasunezko jabetasunik ez daukala esaten dabe espaintarrak.

Bai ?

Atzean geratuko ote gara ?

Atutxa'tar Paul
Zornotzan, 2.011n Epaila'ren 31'n.



AMA LURRA - (URA)

-1-

Begitu ta begituz
batetik bestera,
egazkada egin dot
erri danetara:
lurretik urrinera
urrindik lurrera,
amaitu barik nator
neure ikusmira,
Ama Lurrak niretzat
daukani begira.

-2-

Arrigarria guztiz
aurkitu dodana
ainbeste sorkari ta
izarren andana.
Zenbatu ezin bada
orko jende dana,
naiezta be izan bear
andi ta bakana,
bizi diran guztiek
etxetzat dabena.

-3-

Etxe orren barruan
bizirik sartzeko,
ur tanta bat naiko da
ondo jarraitzeko.
Ama Lurrak, orretan,
bildurrik eztauko
urezko ume pilla,
lurrera ekarteko,
batzuk dezagertuta,
barriak sortzeko.

-4-

Sarritan jausten jakoz
euri saparradak,
batzutan zirimiri
askotan ekaitzak.
Sortzen ditu, beingoan,
erreka ta ibaiak,
ur laster ta putzuak,
baita iturburuak,
danak iruntsi arte,
itxaso zabalak.

-5-

Arri ta egurretan
naiz gizakietan,
euneko larogei da
ura, oñarrrian.
Zugaitzak susterretan
biziak agoan,
ba dabe non ipiñi
ura seguruan,
azi ta garatuaz
taiutu artean.

-6-

Ama Lurra dogunez,
Ama maitatia,
damosku edateko,
betiko bizia.
Sikarreko putzuan
dauko iturria,
oparo ixurtzen dauan
zerutar grazia,
bein betiko asetuz
barruko egarria.

Munetxek

Bil.-2010.X.11

olerkia



AMA LURRA (MENDIAK/ ZUGAITZAK)

-1-

Zure ondoan dozu,
euskaldun mendia
pozik artzeko zure
besarka ezta.
Gorputz ederra dauko,
mardul ta gaztia,
tinko ta usai gozoz
ondo igurtzia,
txukun, garbi ta garden
bere aurpegia.

-2-

Zugaitzeko jantziak
jantzi dauz mendiak,
danetan agertuaz
eder-ederrenak.
Tontor eta egalak
ditu estaliak,
baita beko lautadan,
apain bereziak,
dizdiratsuak oso
ta zoragarriak.

-3-

Euskal menditan dagoz
zugaitz bereziak
euskal izenagaz be
ondo ezautuak.
-Ni naz gaztainondoa,
-gu gara urkiak,
-ta gu aretxa, pago,
altza ta lizarrak,
gorostia, pinua,
izaia ta arteak.

-4-

Zugaitz berezi dogu,
ezauna mendian,
toki askotan dana,
"arteak" izenean.
Osto narrutsuk ditu
"ezkurra" barruan,
beronen urunena
jana antziñean.
Altxor aberratsa da
gure oianetan.

-5-

Zugaitz batzuk ba dira,
txapel andikoak
kerizpea egiteko
oso egokiak.
Txoritxuentzat bere
gordeleku onak,
egurats ta aizeteen
zaindari bikañak,
autsa garbituaz ta
gitxituz zaratak.

-6-

Euskal mendiko aideak
arnastuko zaitu,
ta aize fresko legunak,
izerdia kendu.
Iturritxuko urek
egarria ildu
ta bideko frutuak
gosea asetu.
Mendira ibilteak
osatuko zaitu.

-7-

Osasungarri bada
mendin ibiltea,
atsegingarria be,
dagona ikustea:
txorien egazkadak
ardien taldea,
zaldien galapadak,
arito talkea,
ta edozein lekutako
lore kolorea.

-8-

Gernikako Arbola
zugaitzen artetik
mundu guztian dogu
kantuz entzuenik.
Es dadilla gelditu
buruan gordearik!
Jaurtin daigun kalera,
bape bildur barik,
toki guztietan beti
euskera eginik.

Munetxek.

Bil-10.X.7

olerkia

Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Ikasten

		2	3	7			4
		7		8	1		9
8	4					3	6
2		8			3		5
	5		2		9		4
4			6			2	1
1		5					9
9			1	3		4	
7				6	5	8	

Sudoku

3	1	8	5	6	4	2	7
8	7	3	1	5	6	8	9
1	4	2	8	3	5	7	4
9	7	4	6	2	1	3	8
5	2	3	9	7	4	8	1
6	1	9	4	8	2	5	3
7	8	5	1	3	6	4	2
4	3	6	7	1	9	8	5

Sudoku

	1			5			7	
6	9		8			3	5	4
		5			9			2
			2			4	9	6
		4	3		5	1		
7	6	8			4			
1			6			8		
3	4	2			8		6	9
	5			7			4	

1	4	2	3	7	6	9	5	8
6	9	7	8	1	5	2	4	3
5	3	8	2	4	9	6	7	1
3	2	5	4	6	1	8	9	7
7	8	1	5	9	3	4	2	6
9	6	4	7	8	2	1	3	5
2	1	9	6	3	7	5	8	4
4	5	3	1	2	8	6	6	9
8	7	9	6	5	4	3	1	2

IPUIN SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
berri ona ematera.

orra! orra!
Gure Olentzero!
Pipa ortzetan duela
eserita dago
kapoiak ere baditu
arraultzatxuakin
biar meriendatzeko
botila ardoakin.

Inolaz ezin dugu
Olentzero ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.
Saieski ta solomo
makina bat este
Jesus jaio da eta
alaitu zaitezte.

orra! orra!...

